



PEILLEN, Txomin

Euskaltzain osoa
Euskal Hizkuntza eta Literaturako emeritua Baionako Fakultatean
5 Chemin d'Arantzeta
64100 Baiona

BIBLID [1137-1951 (1998), 3; 51-60]

Euskararen lekua Iparraldeko antolakuntza eta legeetan

(The place of the Basque Language in the organization and laws of the Continental Basque Country)

Zdazki honetan erakutsi nahi izan dut Frantziaren hizkuntza politika, XX. mendean eskoletan bilinguismo apur bat onartu bazuen, 70 urteez debekatu zela. Deixonne legearen ondotik zer dekretu, zirkular eta beste izan den eta nola ofizialtasun ezaz ezin den ez udal etxeetan, ez polizian, ez justizian, ez zerbitzuetan aurkitu euskaraz hitzeggin nahi duenik, eta idatziz guttiago.

En este trabajo he tratado de mostrar la política lingüística de Francia, que, aun habiendo admitido cierto grado de bilingüismo en las escuelas en el presente siglo, en los años 70 dictó su prohibición. Se analiza qué decretos, circulares, etc. se promulgaron desde que se publicara la Ley Deixonne, y cómo la ausencia de la oficialidad lingüística imposibilita hacer uso del euskara en los ayuntamientos, policía, justicia y demás servicios.

après un historique du bilingüisme partiel du XIX^e ème siècle et de soixante dix ans de répression d'un usage public et scolaire du basque, l'auteur analyse les lois et décrets de l'enseignement de la langue, depuis 1951 (Loi Deixonne) et montre que faute de loi-cadre et d'officialité la langue ne peut s'écrire ni dans les administrations (municipalités, justice, police) ni dans la plupart des services.



1. **Lekutzea**. 2. **Historia apur bat**: 2.1. Frantsesa sartzen. 2.2. Hirugarren errepublika jakobinoa. 2.3. Euskara, ate txikitik, berriro eskolan: 2.3.1. 1951n Deixonne legea. 2.3.2. Beste testuak. 3. **Publikoko sistemaren araudia**. 4. **Elizaren eskolako sistema**. 5. **Ikastola, euskal eskola**. 6. **Bordeleko Unibertsitateko diploma**. 7. **Euskal lizentzia Baionan**. 8. **Soziologiako azterketa edo Europako egoera txarrarena**: 8.1. Administrazioan. 8.2. Udaletan. 8.3. Hauteskundeetan. 8.4. Zerbitzuetan. 8.5. Fakultatean. 8.6. Kultura lekuetan. 8.7. Bide seinale eta herrien izenetan. 8.8. Justizian. 8.9. Unibertsitatean. 8.10. Prentsa idatzian. 8.11. Prentsa mintzatuan. 9. **Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren proposamenak**. 10. **Hizkuntzaren lege bat**. 11. **Lurraldetasunik eza**. 12. **Euskalerritar jendeen iritzia**. 13. **Geroa**.

Gai honekin ez zait erreza izango bereiztea legekoa, soziologiakoa, eta kondairakoa.

1. Lekutzea

Ipar Euskal Herria, euskal lurralde historiko guzien %10a da; 260.000 bizizale ditu, %27 bakarrik euskaldun, hor nonbait, eta ñabardura baten emateko piramide txarrean, erran nahi baita %60 zaharrek hitz egiten badute, gazteetan %10ak baizik, nahiz gehiagok ulertu.

2. Historia apur bat

Ipar Euskal Herrian lehen mailako eskola abiatu zutenak **Erreformako** kalbinistak izan ziren, Leizarragaren abezedarioarekin. Trentoko kontziliotik landa, **Kontra erreformako** Elizak behartu zituen herri, parrokiak guztiak errejent edo maisu baten izatea, euskaraz apur bat irakurtzen eta idazten jakin zezaten haurrek dotrinaren ikasteko. Gaizki ordaindurikako errejentek egun erdiko klasea ematen zuten, euskarazko Eliza liburuak eskoletan erabiliz. Ikusketa baten ondotik 1799an eta 1808an egin ziren txostenetan, frantsesa herri gotorretan erakasten zen: Donibane Garazi, Maule, Atarratze, Barkoixe, Donapaleu; besteetan oso guti, euskara nagusi eta maisu batzuek ez zekiten frantsesik.

2.1. Frantsesa sartzen

1833an beste txosten baten ondotik, **Guizot legeak** Eskola Normalak sortu zituen, baina maisugaien gehiengoak ez zekian

euskararik; gainera erabaki zen euskara erabiliko zela, euskaratik abiatuko eta apur bat erakatsiko, helburua zelarik iñon entzuten ez zuten frantsesaren ikas zezaten. Sistema elebidun horrentzat Bigarren Inperioaren garaian 1852-1870eraino euskarazko liburuak egiten dira: Duvoisinen *Laborantzako Liburua*, Goihetxe ta Artxuren *Alegiak*, Goihetxe eta Intxausperen *Dialogoak* eta Artxuren *Bi mihien gramatika* eta ariketa elebidunak.

Lehen maila eta bigarrenarenaren gehiena Elizaren eskuetan zegoen, eta bigarren mailan euskarak leku gutti, non ez zen apaizgaitegian Larresoro eta gero Uztaritzen, apezek beharrezkoa baitzuten predikatzen jakitea sinesleek ulertzen zuten hizkuntza bakarrean.

Bigarren mailako Ziburuko Bethanian eta Donibane Garaziko Maiorgara Ploermeleko fraideak ekarri zituzten, alegia bretoiari interesatuak zirenez gain, euskarari leku bat utziko ziotelakoan. Broussain medikua eta Arbelbide apezka ahoa bete haginekin geratu ziren, fraideek ez baitzuten beste kezkarik fraidegai biltzea baizik (P. Xarriton). Halare euskarak ez du iñolako atzerakadarik ezagutzen ezezko arrazoinen gatik, eta Hiriburun Baionako herri auzoan haurrak eskolara doaz frantsesa jakin gabe.

2.2. Hirugarren errepublika jakobinoa

1880-1920. Garai hartaraino lehen mailako erakaskuntzak Elizaren babespean jarraitzen zuen eta euskara bakean uzten. *Jules Ferry* legeak 1880an ikasleei eta erakasle euskararen erabiltzea debekatu zien: eskoletan maisuek haurrak zigortu behar zituzten, baita maisu batzuk ere kalean hitz egiten entzun gazteak egiten zituzten. Gainera, lege berdinenaren izenean euskaraz dotrina irakastea debekatu nahi izan zen; jauntxoek aberats eta diputatuen protestekin Parisek amor eman zuen.

Lehen berrogei urteetan irakaskuntza horrek porrot egin zuen:

1. Gurasoek ez zuten ikusten frantses eskolatzearen abantailarik, herriak biztanleen erdiak galtzen zituelarik Hego-ameriketara joanaz, gero haurrak gazterik lanean jartzen zirelako.
2. Euskara besterik entzuten ez zuten haurrei frantsesa erakastea ia ezinezkoa zen. Denbora berean hitz egitea debekatzeko zitzaielarik, euskaldun erakasleek itzulpen lanak eginarazten zituzten eta hiztegi taula elebidun batzu erabiltzen. Nola nahi, Euskal Herriko euskaldun maisuak ez dira sekulan %30ez goiti izan, eta 1974an 84 zirelarik

euskaldunak, 42k baizik ez zuten onartu hizkuntzaren erakastea. Pentsa denbora zaharretan!

Halere maisu batzuek ez zuten etsitzen, nahiz prefeta (egiazko gobernadorea zena eta dena orain ere) honela mintzatzen zitzaien maisu berriei: *"Souvenez-vous que votre tâche est d'éliminer de notre département des Basses-Pyrénées les deux jargons qui l'affligent, le basque et le béarnais"* ("Oroitu zaitetzte zuen egitekoa dela gure departamendua plagatzen dituzten bi sasi-hizkuntzak (euskara ta bearnesa) galerazi behar dituzuela").

Ikasbideak maisuen eskuetan zeuden, argien eta ilunen menean. Euskaldun erakasleak ez ziren beti hobeak; ez du aspaldi euskaldun haurrak G.en Zuberoan zigortzen zituenak handik urte batzuetara euskal erakasle ibiltaria izango dela, eta ikasle ohien destainak eta mesprezuak jasango dituela U. errejentak.

1920-1950. Bi gerlen artean maisu erdarazaleek beren alde izango dute:

1. Ipar Euskal Herrikoentzat Hego Amerika galerazi ondoren, frantses hizkuntzako herrietara emigratu beharra,
2. 1914ko gerlari ohien artean euskararen lotsa eta frantses nazionalismo txaubinista sartuko dute.

Orduan agertzen dira lehen aldikotz *euskotarrak* Zuberoan, errate baterako burges eta noble askok eta nekazari ez guttik gure hizkuntza beren haurrei erakastea uzten dutelarik. Bestalde, frantses eta español erdaldun emigraketa Euskal Herrian bitxiki sartzen da, euskaldunak berak kanpora doatzalarik, beren herriaren geroan ezin sinetsiz.

2.3. Euskara, ate txikitik, berriro eskolan

2.3.1. 1951n Deixonne legea

Lege biltzarrean Parisen Deixonne diputatuak aurkeztu eta ardietsi zuen lege txiki hori, 1951ko urtarrilaren 11n. Lege horrek 51- 46 zenbakia zeukan eta bakarrik irakaskuntzan balio zuen.

Frantziarenpeko hizkuntza guttittuen maila guzietan erabiltzea artamendatzen zuen:

- Lehen eta bigarren mailan ordubete eman zitekean:
 1. irakasleak zeudenean
 2. gurasoek abisatzen baldin baziren
 3. eta aitama ta ikasleek nahi zutenean

- Hizkuntza horiek, hala nola euskara, batxilleratoko azken urtean aurkeztu zitekean, baina mediatik gorako puntuak bakarrik kontutan hartuz, aipamenaren emaithekotan.

- Hizkuntza horietako edota horiei buruzko liburuak erakaskuntzako liburutegian sartu zitezkean.

- Dirua lortzen bazen jadanik beste gai baten erakasle zirenei formakuntza bat eman zitekean.

Lege horrek hamabost urteez arrakasta txikia izan zuen; bigarren mailan batxilleratoko azken urtean klaseak ematen ziren (neronek holako klaseak eman nituen Parisen dotzenerdi bat ikasleei, Lycée Lavoisier delakoan eta hamahiru urteez). Lehen mailan maisu batzuek erabili zuten berriz, euskarazko itzulpenen eginarazteko edo kantuak, antzerkiak erakatsiz, baina herri gehienetan ez.

Bitartean euskarak beherakada handia ezagutzen du Iparraldean, milaka gazte Parisera ta Bordelera doatza lan bila eta guraso asko euskararen gaitzesten hasten. Esate baterako, Zuberoako Ibarezkerrean 1955ean haur guziek euskara bazekiten eta hiruk hitz egiten.

Herriko katzikeak, berek mende hastapenean euskara utzi zutenek, urte askotan euskararen alde zirenak, hasi ziren pixkanaka esaten nahikoa zela euskararen ikastea etxeetan, baina laister etxe guzietan frantses telebistaren sartzearekin, gero baserri eskolen gordetzen haurrak 3 urteetan frantses eskolan sartzen hasi zirenean, hogeitau urteetan gehienek ikasketak bukatzen, euskararik entzun gabe: sekulako barne atzerakada ezagutu zuen euskarak Iparraldean.

2.3.2. Beste testuak

Ondotik emango ditugun testuak, administrazioak dirurik eman gabe, hogeitau urte beranduago erdizka aplikatuko dira; gehienak zirkularrak dira eta bat lege baten zatia. Denek euskarari buruzko politikarik eza salatzen dute, eta nahiz borondate onez ministroek eginik, administrazioak ez zion ministroari obeditzen.

2.3.2.1. 1966ko urriaren 24koa (66-361zbk.)

Irakasle batzordeak sortzen dira, ordaindu gabeak, egitasmo, testu, ordutegi eta azterketa gaien antolatzeke. Laister holakoak *Ikas* izena hartuko du Ipar Euskal Herrian.



2.3.2.2. 1969ko otsailaren 17koa (69-90 zbk.)

Deixonne legearen emendakina: lekuko geografia, kondaira, arte ederrak, eta ingurugiroaz erakats liteke. Ez da asko baliatu. Geografiaz eta historiari frantses hizkuntzan Saxe jaunak bi liburu egin ditu, eta geroago *Lauburu* taldeak *Histoire et Civilisation basque* talde liburuak gai horietaz. *Ikas*, publiko eta pribatuko irakasleen elkarteak, sortzen da eskolako ikasgai testuen euskaraz egiteko. Talde horrek berak Lichau anderearen lehen mailako matematika liburuak, geografia ta kondaira liburuak, Marijan Miñaberriren irakurgaiak argitaratu ditu, ezen hegoaldeko liburuak ezin diren erabili, programa ezberdinak direlako Frantziako sisteman.

2.3.2.3. 1970eko urriaren 5eko dekretoa

Batxilleratoan II.en III.en hizkuntzaren aukerazkoa berrituz batxillerato orokorretan.

2.3.2.4. 1970ko azaroaren 26ko erabakia

Teknikalari batzuen batxilleratoan euskararen onartzea, hizkuntza bezala. (Urte hartan aztertu nituen berenkasara euskara prestatu zuten lehenbiziko teknikalari irakasleak).

2.3.2.5. 1971ko irailaren 7an (71-279 zbk.)

Hiru ordu eman zitezkean hamar ikasle bilduz geroz, eta erakasleen zerbitzu arruntaren barnean kondatuak.

Hamar irakasleen biltzeko oztipoak daude:

1. gurasoek ez dakite, administrazioak ez ditu abisatzen
2. orduak bazkal garaian, arratsean edo asteazkenetan ematen dira
3. ez da irakasle posturik sortzen
4. gehienetan zerbitzuaren gainetikako ordu merkeagoz ordaintzen dira

Beraz, hamabi urteren buruan Deixonne legea gehien bat batxilleratoko azken urtean baliatzen da, orotara 80-100 ikasle aurkezten direlarik.

2.3.2.6. 1974 Fontaneten garaian

Ministro horrek ez ditu DPLFekoak (*Défense et Promotion des Langues de France*) ikusi nahi eta dio hizkuntza guttitiuen erakasteak erakaskuntzaren oreka orokorrari kalte egin lezaiokeela. Eskatu duten ikasle gehienek ez dute euskarazko klaserik eduki, 1974 70 ordu behar zenean 9 askatu zituen Akademiak, Pauen, Bordelen eta kolejo-lizeotan irakasleak eta

gurasoek eskatuari gortasunez erantzuten dute edo seizapi hilabeteko luzapenez irakasleak etsiarazten. Irakasle posturik ez da sortzen.

2.3.2.7. 1975eko uztailaren 11an Haby erreforma

Legearen zati bat (legea 75-620 zbk.), beste lege ta testuak errepikatzen ditu ezer berririk gabe.

2.3.2.8. 1975eko azaroaren 21ekoa (75-476)

Lehen eta bigarren mailako irakasleentzat formakuntza jarraikia eginkizun. Ez da obratzen dirurik ezaz. Beranduago testu hortaz baliatuko da 1980 etik goiti.

2.3.2.9. 1976eko urtarrilaren 29ko erabakia

Euskara hizkuntza legeaz teknika eta nekazaritzazko batxillerato guzietara hedatu liteke.

2.3.2.10. 1976ko martxoaren 29ko zirkularra (76-123)

Ernetze jarduera delakotan *activité d'éveil*-etan astean ordubetez euskal mundua aipa zitezkean, ordutegi arruntaren barruan, eta frantsesez izan ezker gazteen edo gurasoen baimenik gabe, baina maisuak nahi izanez geroz.

2.3.2.11. 1976ko martxoaren 29an

Lehen eta bigarren mailako ikastaldiak egiten dira, eta Eskola Normaletan sartzen, baina kultura bakarrik aipatuz, ez hizkuntza. *Ibiltariak (itinérants)* delakoak hasi ziren eskolatik eskolara klaseak ematen (1974an 3; 1976an 6).

Hauk izan ziren lortu ziren txikikeriak, urte luzeetan Hizkuntza Guttitiuen batzordeak (*Conseil des langues et cultures régionales*) delakoak besterik eskatu arren, eta hainbeste urteez eskuineko gobernalariekin alferretan euskararen estatuto bat edo *loi-cadre* delako bat negoziatu arren.

2.3.2.12. Savary jaunaren zirkularra, 1982ko ekainaren 21ean

Hau da eskola publikoetan (elebiduntasunaz kanpo) gaur erabiltzen den araudia. Boluntarioek bakarrik euskara ikas dezakete lehen mailan ordubetez edo hiruz; zibilizazioa ere euskaraz irakats daiteke.

11-13 urteetan, lizeoan, ordubete astean
13-15 urteetan, lizeoan 3 ordu astean

15-17 urteetan, lizeoan II edo III hizkuntza nota osoa kontutan hartuz

Gela elebidunen irekitzearekin ibiltari askok eta postudun guttik egiten zuten hori 4.200 ikasletatik 1400etara jaitsiko da.

Lang jaunak lege hori errepikatuko du 1992ko azaroaren 24ko Bordeleko Akademiako zuzendariari zuzendu zuen eskutitzean.

3. Publikoko sistemaren araudia

Eskola publikoan "elebiduntasuna" 1983an hasi zen. Savary legea jarraitzen dute eta elebiduntasuna honela praktikutzen: hamabi ordu euskaraz, hamabost frantsesez; beraz B eredu batean daude publikoko haurrak. Beren interesen zaintzeko, guraso elkarteak dago, *Ikasbi* izenekoak. Ikastolak hainbat arrakasta eta gehienetan emaitza onak izango ditu eredu horrek.

Ikastolak hainbat arrakasta izaten du eta zenbaki berdinetara iritsi dira hamabost urteren buruan erran nahi baita, bakoitzak mila ta bostehun bat ikasle.

4. Elizaren eskolako sistema

1968an azaldu zen euskarazko ama eskola Baionan, baina lehen maila apezpikutegia aski uzkur egon ondoren, 1983an baizik ez zen hasi. Sistema hau ere, ama eskolan izan ezik, B eredukoa da, Savary legeak zaindua, baina erakasle gehienak Hezkuntza Ministeritzak kontratuz ordaintzen ditu; katoliko erakaskuntzaren zuzendaritzarekin hiru urtero konbenio bat sinatzen dute. *Euskal Haziak* izeneko gurasoen elkarteak sustengua ematen dio sistema honi. Nahiz uzkurtasuna ez osoki gairiditua izan, eskola mota horrek Lapurdi barnealdean arrakasta dauka; beste sistemek bezainbeste ikasle ez du nonbait, 900 bat; gainera frantses Hezkuntza Nazionalak irakasleak ordainduz ez da nahikoa postu sortzen eskaerari erantzuteko.

5. Ikastola, euskal eskola

Non ikasi behar zuten euskara, jadanik bigarren mailan lagun gehienak erdaldun izanki eta irakasleak ez aipa? Baionan 1965ean errefuxiatuek sortu zuten beren ikastola Txillardegiren inguruan eta andereñoa Bidegain iparraldekoa zelarik 1969an.

Baionan arregura horrekin iparraldekoek sortu zen lehen ikastola Noblia anderearekin eta

Burucoa, Camblong, Pagola jaunekin; 1970ean kooperatiba moduan abiatu zen **Seaska** izena hartuz. Hamar urte kostako zaio ikastola baztertu honi eskola pribatu kategoria erdiesteko; denbora hortan gure diruaz mantendu dugu eta Herri-Urratsen bidez hegoaldeko anaiek eman laguntzaz. Halare duela hamar urte 3 milioi pezetaren neurriko zorra zeukaten eta geneukan.

Eskola horrek ditu arazo haundienak eduki bere D sisteman irakaskuntzako mintzaira euskara delako eta frantsesa kanpotar hizkuntza nagusia. Halatan ere, fotokopiaz ematen ditugun konbenioek darakusate polliki polliki, laguntza erdi baten ondotik 1983an, beharrezko diplomadunentzat kontratu osora igaro dela ikastola.

Halatan ere, beste sistemek ez daukaten oztopoa eskola eraikuntzarik ez izatea da, eta Frantziapen hori hiri eta herrien esku dago. Halaxen Baionak lehen mailako hiru ikastola eskaini ditu eta bigarren mailako lizeoa; Biarritzek, Donibane Lohitzunek, Angelu eta Hendaiak lehen mailakoa; Urruña eta Zuberoa lekuz gaizki dabilta.

Hiru urtero konbenio bat sinatzen du *Seaska* ikastolen federakuntzak Ministeritzarekin. Urtetik urtera hobetuz joan dira baldintzak. 1994tik 1997raino jadanik andereño eta jauntto ziren irakasleentzat lizenziatura ikasketa laburra zuzendu nuen.

Ikastolak lortu ez dutena eta Mitterandek agindu ziona da sare publikoan sartzea; agian egun batez kausituko da, baina etsaiek ez dituzte beren armak utzi. Ikastolaren etsai haundienak lehen mailako maisuen eta bigarren mailako kolejio irakasleen sindikato SNIa ziren eta dira: lehen euskararen irakaskuntzaren etsai; gero publikoan elebiduntasuna sartu zenean hauen alde baina ikastolaren kontra. Sekulako hasarrea izan zuten Biarritzeko Udalak ikastolaren eraikuntza ordaindu zuenean, Ikastolako aitamak ezpalira bezala besteen gisa zerga ordaintzale.

Bigarren mailako SGEN lizeokoa, euskararen irakastearen alde genuen betidanik; orain gure elebiduntasunaren aurka dagitenak inspektoreak dira, Warnier batek eta Cauchon batek beren eskutitzean gogorki eraso dituzte eskola elebidunak, nahiz estatistikak lekuko ikasleen artean emaitza onak eragin dituzten. Bestalde, publikoaren alde eta ikastolaren kontrako jokuan jarraitzen du SNI kolejiokoak, ez bataren ez bestearen onerako.

Duela hamar urte Bordeleko Akademia guziko irakaskuntza mota guziak kontralatzen dituen *Recteur* delakoak aholkatu zигun, artamendatu zигun estaduko funtzionari ginenaz gain Ikastolaren ez laguntzea, ez aipatzea. Gainera abisatu gintuen irakaskuntza publikoak sortzera zoala *Ikasbi* sistema (B ereduz), Ikastola suntsitu behar zuena. Aski fermuki erantzun

genion Haritschelhar, Oyharçabal eta Orpustanekin, estadiak bere lana ongi betetzen etzueno ikastola izango zela.

Azkenean denentzat lekua badago, eskaera eskaintza baino handiago delako Ipar Euskal Herrian. Ikastolaren garai berean Elizako eskoletan abiatu zen elebiduntasuna garatu da B ereduaren gehienbat eta D ereduaren *Euskal Haziak* guraso katolikoek elkarrekin gero sortu zen. Halatan ere euskarazko eskola nagusia ikastola da eta laister Kanbon zeukan lizeoa Baionara ekarriko du osoki, hiriak eman lizeo batean. Ikasbideen aldetik eta testugintzarako *Seaska*, *Ikasbi*, ta *Euskal Haziak* denek bat egin zuten *IKAS* elkartearen; orain ofizialki Ministeritzaren Pedagogia zentru bezala ezagutua dena, baina hasieran frantses sindikato laikoek gaizki ikusia hiru sareetako irakasleak batean biltzen zituelako.

B eta D eredu horien hedapena zor diogu denbora berean hegoaldean egiten zen lanari esker eta askotan ikusiko dugunez Donostiako Magisteritza eskolaren formakuntzak urgaitzirik *Ikastola* lehen euskal eskola eta urte askotan bakarra estadiaren laguntza eta begirune bakar hazi eta garatu dena. Nahiz Mitterand hitzemaile handiak agindu, ez da *Ikastola* publikoko sarean sartu; oztopo handiena da D ereduaren ez duela frantses sistemak onartu nahi euskararentzat, nahiz Frantzia dauden ingeles, hebraiera eta aleman kolejoetan bai. Halaber azterketa euskaraz pasatzea ez dute nahi frantsesek batxilleratoko azken azterketan, hizkuntza izan ezik, bakarrik biderditakoan 14-15 urteetan aurkezten den hortan historia, geografia eta hizkuntza euskaraz eman daitezke, publiko sareko gurasoen indarrez lortu dena Unibertsitatean.

6. Bordeleko Unibertsitateko diploma

Agian dinamika azkarregia, sendoegia genuelako Frantziak, bere hizkuntza ttikien artean azkenik eman dizkigu maisuen formakuntzaren lehen bideak. Aurretik berrogei urteez teilatu bat, hots doktoradua, izan zen (hizkuntza hilik izan balitz bezala) eta lizentziaren ormarik ez. Euskal erakasle zirenen formatzeko besterik ezinean eta agintarien zankarte batzu izanik Julen Ajuriagerra Jean Haritschelhar katedratikoen, Eugenio Gohieneche eta Piarres Xarriton erakasleek lortu zuten Euskal ikasketen Institutoa Baionan ireki zedin eta Bordelen eman zezan euskal diploma bat, lizentzia ez zena.

7. Euskal lizentzia Baionan

Geroago, gora-behera askoren ondotik, Paue ta Bordelen arteko itun bat nekez sinatu zen

eta Euskal ikasketen saila Baionan sortu, zeinek Euskal filologiazko ikasketa osoak lau urteez eskaintzen baititu. Urte batetik bestera 90 bat ikasle atxikitzen ditu. Denak, ordea, ez dira irakaskuntzan sartzen eta gerorako irakasleak formatzen ditugunez, Iparraldeko euskara ikastearen ikastera arauera ez da nahikoa. Jadanik lehen mailan eta bigarrenean hegoaldetik etorritako irakasleak baditugu.

Bigarren mailako euskal magisteritza *CAPE*Sa lortu dugu eta Baionan ematen dizkiegu irakasketak; iaz lizeoko oposizio edo lehiaketan onartu ziren hiru irakasleak hegoaldekoak ziren.

Lehen mailan ordea, ez dago ezer elebiduntasunari formakuntzan: aintzina Eskola Normalak zerratu eta unibertsitateak formatu behar zituen maisuak, baina eskola Normalekoek lortu dute, beharrezko diplomarik gabe, unibertsitario bezala hartuak izatea, eta lehengo maisu jakobinismoan jarraitzea. Elizako eskolakoek, ikastolakoek eta publikoek itunak izenpetuz Donostia izaten dute Magisteritza eskolan formakuntza laburra edo ertaina.

Bordeleko IUFMeko buruzagisak, Perrin-Nafakh andereak, ministroa desafiatuz ezpaitu euskarari aterik ireki nahi, lehen mailako formakuntzan horregatik Bordeleko unibertsitatearen izenean J. B. Orpustanek Baionan lehen mailako formakuntza bat izan dezagun, bi unibertsitate postu eskatu ditu, bata hizkuntza bestea zibilizazioan.

Maisu euskaldunen alde zerbait egiten zuten bakarrak inspektoreak ziren eta suharrenak erdalduen andere xahar bat, Madame Leralue, eta Lichau andere euskalduna, biek publikoaren lehen elebiduntasun programa ta araudia idatzi, akulatu eta onartarazi zutelako. Gorago ikusi dugu ere nola liburugintzan kide izan ziren eta jubilatua izan arren euskararen ikastearen aldeko ekintza guzietan goratik mintzatzen. Euskarari egin dioten mesedearengatik Euskaltzaindiak ohoratu zituen.

8. Soziologiako azterketa edo Europako egoera txarrarena

8.1. Administrazioan

Ez. Euskara ez da iñolaz ere ofizialki onartua. *Bai*. Garai batean ere Baionako geltokian gertatu zait zuberotar enplegatu batekin aldiro hitz egitea, baita behin edo beste Baionako eta Mauleko hirizain baten batekin ere, baina ahozkotik idatzira igarotzea ezinezkoa eta izan dadin administrazio txiki ala handi sekulan ez dut ezer hartu euskaraz idatzirik, ez bi hizkuntzetan ere.



Frantzian badago aspaldidanik frantsesaren legeztasun bakarraren sinestea eta Ipar Euskal Herrian itsasi digute. Bi adibide nituzke. Erdi eroritako etxe bat eta lur txiki bat nekazari izanikako bati erosi nahi nizkiolarik Irurin, Zuberoan, jabeak bere "etxaldea" erakutsi zidan: bi orduz nik zubereraz eta hura frantsezez, ofizialtasunezko hizkuntzan.

Halaber XVIII. mendean hasirik euskarazko eskuidazkietan jabetasuna, *ex librisa* beti frantsesez agertzen da: "*J'appartiens à*". Halaber etxe atalburu gehienetan urtea eta jabearen izena frantsesez: "*Vive Arlande et Maria Ibar, l'an 1799*" idatzia da gure Santa Graziko etxean. Pentsamendu zahar horren aldatzea nekeza izango da, hortarako testurik ezpadago.

8.2. Udaletan

Bai ta ez. Herriko kontseiluetan (udaletan), denak euskaldun direnean, bilerak euskaraz ematen dira eta idatzizkoa frantsesez. Zuberoako idazkari askok euskara dakite, baina euskaraz idazten diezunean, nahiz auzapezak (alkateak), nahiz idazkariak erantzuna beti frantsesez itzultzen dizute. Ia-ia frantsesa dakian Santa Graziko gure "*alkateak*" urteberriko zorionen idazteko ez darabila euskararik, herrian adin guztietako bizilagunak euskaldun direlarik.

Gainera herriaren izena euskaraz ipintzea ez du nahi udalak, abertzale ekintza lizatekeelakoan eta errepublikari bere leialtasunaren erakusteko honelan jokatzan dute *Quousque tandem...*

Udalen arauera Ipar Euskal Herrian euskaraz edo bi hizkuntzetan agertzen den gauza bakarra da herriko jaien kartela, eta hor ere nekazariak udalean nagusi baldin badira frantsesez bakarrik dago abisua. Santa Grazin pastoralara eman zutenean bakarrik erdi elebidun kartelaren egitea onartu zuten.

8.3. Hauteskundeetan

Bai. Hauteskunde garaietan hautagai guzietan euskaraz hitz egin zenezake. Abertzale alderdiek beren egitasmoak bi hizkuntzetan ematen dituzte eta ezkerreko alderdi batzuk hamar bat lerro.

Ez. Eskuineko frantses alderdiek eskualdeko hauteskundeetan eta legebiltzarrekotan hitz bat ere gure hizkuntza ta kulturez, non ez den "harrizko ondareen" eta Santiagoko bideen eta folkloreaken aipatzeko.

8.4. Zerbitzuetan

Bai. Postetan eta bankuetan enplegatua euskaldun baldin bada, euskaraz erantzungo dizu. Maulen nire behin-behineko bankuan zeuden bi euskaldunak Biarnora igorri dituzte eta frantsesarekin konpondu behar.

Ez. Frantses banku gehienek (hiru izan ezik) euskaraz idatzitako txekueak, taloiak ez dituzte onartzen, españolezkoak eta ingelesezkoak bai. Legez eta mentalitatez frantsesa eta frantsestua hizkuntza bakarduna da; begi zorrotz horiek ordea badakite noiz den euskara eta noiz beste kanpotar hizkuntza errespetatua.

8.5. Fakultatean

Ez. Guk eskatu arren, ez dago Baionako fakultatean frantsesaz kanpo beste hizkuntza dakian enplegatuarik; bat geneukan euskara, gaztelania ta frantsesa ondio zekiana eta ingelesez ere zerbait, baina kanpotik etorritako frantses erdaldun baten andere gaixoa lehentasunez sartu ziguten. Erakasleak eta ikasleak fakultateko korridore edo transitoetan euskaraz hitz egitearen entzutea ez zaie enplegatuei gustatzenegi.

8.6. Kultura lekuetan

Garai batean ere Baionako *Musée Basque* hortan beti zebiltzan Manex Pagolaren atzetik, euskaraz edo gaztelaniaz erantzun zezan, besteek ez zekitelakoan, Baionako hiriak hautatzen baitzituen. Erakustoki hortan abisuak eta azalpenak frantsesez zeuden bakarrik. Egia da bestalde, ohitura zaharrez, elebiduntasunaren alde zebiltzan buruzagi euskaltzale batzu beren enplegatu euskaldunekin frantsesez mintzatzen zirela. Ahoz halatan denaz, pentsa idatzian. Euskara hegoaldekoekin zerabilten. Mauleko zuberotar Ondarearen Etxean nekez aurkitzen da euskara dakianik.

8.7. Bide seinale eta herrien izenetan

Bai. Nahiz ez den ezer orokorki erabakia izan eta auzapezen arauera euskal formako izenak jarri dira herri gehienetan, bide seinaleak guttiago baina Donibane Lohitzunen, Biarritzen eta Lapurdiko herri anitzetan Zuberoan dakigunez Maulen, Ligin eta Athereien. Errepidean ere, alkateek nahi ala ez, euskarazko seinale batzuk jarri dira.

Ez. Kontrakoenak euskaldun herrixketako baserritar alkateak dira, hala nola Santa Grazin, Haunzen, Urrüstoi, Larrebilen. Diotenez honela dagite frantses onak direla erakusteko.

8.8. Justizian

Bai. Euskara erabil dezakete itzultzaile batekin... *hegoaldeko euskaldunek.*

Ez. Iparraldekoiei debekatua zaie (hau bitxi da, ezen mende honen hasieran baserritar askok frantsesa menderatzen ez zutelako abokatuak, epaileak eta justiziara deituak Donapaleuko auzitegian euskaraz mintzaten ziren, bortxaz). Gainera lekukoak ere ezin du euskaraz hitz egin frantses hiritarra baldin bada. Behin Piarres Xarriton euskaltzainak testigantza eman beharrean latin esaera ospetsu bat bota zuen eta epaileak ixalarazi zuen hasarrez esanaz: "*Hemen Frantzia gaudu, aski entzun dut zuen euskara hori!*". Noski, abokatu batek bere bezeroarekin euskaraz egin dezake, baina ez jende aurrean.

8.9. Unibertsitatean

Euskal filologiaz kanpo, edo beste hizkuntza bateko filologiazko kanpo, ezin da Frantzia beste hizkuntza batean ikasketarik egin. Euskara ezin da erabili barne errotulazioan, non ez den ateetan, *Eusko Ikaskuntza-n*, *Euskal Ikerketak-en*, *Euskal Ikasketen Unibertsitate Arteko saila-n* edo ikasle talde baten izenean, *Hegoa* edo *Lagunak*.

8.10. Prentsa idatzian

Oso guttitan *Sud-Ouest* delakoak euskaraz artikulua ematen du. Ipar Euskal Herriko abertzaleen hostoek, elebiduntasuna eskatzen dutenek, euskarari %5-10 ematen diote (*Elkarrekin lan* izan ezik, hau erdia euskaraz baita) eta Elizaren astekaria den *Herria* alderdiez kanpo, albiste aldizkaria dena, ia dena euskaraz ematen du. Uztaritzeko Euskal Kultura Erakundea bere *Lauzka* boletinean hurbil erdira iritsi zen; orain badirudi, batzutan, euskara guttiago emango dela irakurleari egokitzeke. Geroari begira, *Xirrista*, euskara soilezko aldizkaria ateratzen du erakunde horrek

8.11. Prentsa mintzatu

Baionako *Gure Irratia*, ia dena euskaraz dago, halaber Baigorrialdeko *Irulegiko Irratia*; aldiz *Ziberoko botza-k* du gehienik frantsesa erabiltzen. Aurten hiru irratiek jasotzen zuten diru laguntza departamenduak kendu diete, alegia noizpait Garapen eta Antolaketa eskemaren bidez emango

zelakoan. Frantses irrati "nazionalak" eta telebistak oso leku txikia uzten diote euskarari, lehenak ordu laurden bat, bigarrenak minutu bat eterdi. ETBK oraindik ilununeak ditu. Baigorrialdean berriz, Alduden telebistarako bideo programak abiatu dituen euskaldun taldea badago.

9. Euskal herriko Garapen Kontseiluaren proposamenak

Duela hiru urte, Euskal Herriko Garapen Kontseilua sortu zenean, hartan sartu nintzen ilusio handirik gabe. Bi urteez lan egin genuen. Garapen eta antolakuntza egitasmo eder bat idatzi eta behetik gora Pauera eta Parisera bidali. Eskatzen genituenak ez zuten diru metarik eskatzen ez eta Estatu normal batean arazorik sortuko, baina "l'exception française" aurpegiratzen digute.

1. Eurokartaren sinatzea
2. Euskararen lege bat eta politika bat
3. Euskararen Aholku Batzordea politika horren bideratzeko
4. Elebiduntasuna seinaletan
5. Elebiduntasuna justizian eta administrazioan astiroki sartzea
6. Lehen mailako eraklele elebidunen magisteritza eskolan Baionan
7. Euskal komunikabideen laguntzea

Ekonomia ta azpiegitura batzuentzat dirua eman da, baina kultura harri zaharrak eta Erdi Aroko Santiago bideak dira kontutan hartu, baina euskararentzat ez du dirurik oraindik eman ez hitzeman C.I.A.T. paristarrak.

1. Hizkuntzaren aholku batzorde edo idazkaritza bat agindu ziguten eta ez dute hortarako dirurik eman,
2. ez eta bide seinale elebidunentzat,
3. ez eta ikastolen eraikuntzentzat,
4. ez eta euskal irratientzat
5. ez eta helduen euskaraz alfabetatzeko

Horiek ere gogoratu genizkion Pery andereari, lehen ministroaren misiolariari, euskal elkarte eta erakunde guzietakoak bildurik (Irratilaria, telebistalariak, kazetariak, Euskalzaindia, E.K.E. Uztaritzekoak eta hiru erakaskuntzetako elebidunen ordezkariak).

10. Hizkuntzaren lege bat

Ikusi dugunez, Deixonne lege zaharkituak ez du irakaskuntza baizik ukitzen; hor ere geroztik ez da beste legerik izan; Savary ministroaren zirkularra, gero Lang ministroak berritua, baina lege orokorrik ezak ez ditu gauzak errazten.

Eskuina zelarik poterean bospasei urteez negoziatzen ibili ziren E. Goyheneche, J. Haritschelhar eta R. d'Elissagaray de Jaurgain alferretan. Orain legelariekin eztabaidatu ondoren, Pery itsasaldeko sozialista diputatuak egitasmo bat gertutu du, baina Pariseko erdain eta ezaxolezko horma nola hautsi?

Hona, halare Frantziako hizkuntza txikiak maiz elkar ikusi ondoren zer eskatu diogun Pery anderearen bitartez lehen ministroari: Amsterdameko hizkuntza guttituen Eurokarta Frantziak sina dezan. Frantses Konstituzioaren 2. artikulua aurka duelako frantses parlamentari guztiak kongresuan bildu behar lukete, Konstituzioa aldatuxea izan dadin. Diputatuen eta senadoreen arteko bilera hori Errepublikako lehendakariak eta lehen ministroak dei lezakete.

Hain zuzen Maastrichteko ituna 1992an izenpetu zenean berehala frantses hizkuntza ingelesarengandik babesteko aitzakiarekin, Konstituzioaren bigarren artikuluan gaineratu zen "frantsesa da Errepublikaren hizkuntza" ("Le français est la langue de la République").

Berehalaxe Konstituzioko artikulua hori Frantziako hizkuntza menpetuen aurka erabili zuten legelariak. Hain zuzen lehenik Eurokarta izenpetu behar izan zenean, *Conseil d'Etat* (Estaduko Kontseilua) legelari zaindarien biltzarrak, Konstituzioaren aurkakoa zitekela erantzunaz¹.

Pery anderea urtebeterako hizkuntza guttituen arduraduna dena, Lapurdiko diputatua da (abertzaleen botuekin pasatu dena) eta andere horrek lehen lana izan du *Conseil d'Etat*-eko zaindari horiei galdetzea zertarako alde edo kontra azaldu ziren eta konparaketaren bidez, konponbide baten aurkitzeko.

Bide berdinetik Uztaritzeko Euskal Kultura erakundeak Jean Pierre Aline Paueko fakultatean Konstituzio Zuzenbideko katedratikoa denari kontsulta bat egin zion. Hortik agertu da 2. artikulua hizkuntza eskubide orokorra aipatzen badu, 11.ak bakoitzaren eskubidea berdin aipatzen duela, eta Konstituzio Kontseiluak biak erabili dituela gure mintzairaren aurka.

Bigarrenik, halaber ikastolek sare publikoan sartzea eskatu zutenean, arrazoin berdinekin

ezezkoa eman. Bigarren artikulua horren aldaketa txikia lehen urratsa lizateke, gure hizkuntza guttituek Frantziara lege orokor bat izan dezaten.

Halere Tubon legeak, 1994koak, dio:

21. Lege honek bere neurriak aplikatzen ditu, Frantziako eskualde mintzairaren legeak eta araudiak errespetatuz eta hizkuntza horien erabilera ez debekatuz...

Hortarako dio Aline jaunak gure hizkuntza bi baldintzetan erabilgarri lizatekeala:

le volontariat: bakoitzaren nahikundeaz eta aukeraz iñor behartu gabe,

la non-exclusivité: alegia gure eskaintza bakarra izatea eta frantsesaren gehigarri izatea argibideetan eta zerbitzuetan. Administrazioa idazkietan elebiduntasun sinboliko bat erabili daiteke, baina epaitegietan frantsesak baizik ez luke balio.

Euskaltzaindia-k 1996an Biarritzen bildu zenean euskararen ofizialtasunaren aldeko aldarrikapen bat ezagutarazi zuen. Geroztik ere *Pizkundea*, Ipar Euskal Herriko kultur elkarten federakuntzak berdin eurokartaren sinatzea eskatuz; halaber Uztaritzeko *Euskal Kultur Erakundea*-k.

11. Lurraldetasunik eza

Badu berrehun urte eta bederatzi eskaera egin dituela Ipar-Euskal Herriak errepublikaren legepean egonaz, departamendu bereizia izateko, ekonomia eta dinamika arrazoinez kanpo, hizkuntza eta kultura mailan bearnesekin uztartuak izateak "*Pyrénées Atlantiques*"-etan oztopo handia egiten digu, ezen okzitano horiek ez baitute gure dinamika: zerbait eskatzen den aldioro Pauen esaten digute, berdintasunaren edukitzeko bearnesei berdina eman beharko zaiela, eta bearnesek ezer eskatzen ez dutenez, gure eskaria maiz bazterten da.

Halere azken sondaketa batek erakutsi du bearnesek %60tan beren hizkuntzari atxikiak direla, baina "*la fe sin obras*" batekin askiesten badira, hortan noraino iraungo dute?

1. Frantziara bi erakunde daude legeen kontrolaz arduratzen direnak: (1) *Conseil d'Etat* ("Estaduko Aholkularitza"), 1872an sortua. Egun ta berrogeita bi kide ditu. Lehenburua Justiziako ministroa, beste kideak *Ecole Nationale d'Administration*-etik ateraiak edo administratzaileak goi funtzionarioak eta Errepublikako lehendakaria aukeratu politika gizonak. Gobernuak aholkuak eskatzen dizkio, erabaki (desjabetzapen, publiko ezagutza), erreforma, edo lege berrietan dudak dituenen. Baina batzorde horrek ezin du erabaki, aholku eman baizik. Bost taldeetan zatitua da: Finantza, Herrizaintza, Herri obrak, Gizarte eta Kontu auzi arazoak sailak. Gobernuaren lanaz urtero txosten bat egiten du. (2) *Conseil Constitutionnel* ("Konstituzio Kontseilua"), 1958ko Konstituzioarekin sortua, 9 lagun, zuzenez errepublika lehendakari izanar. Hauteskundearen kontrola dagite eta iñork eskatu gabe Konstituzioaren aurka doalako erabaki bati buruz, oztopo erabaki bat hartuz.



12. Euskalerritar jendeen iritzia

Nahiz lurraldetasunari buruz, nahiz elebiduntasunari buruz Ipar Euskal Herrian erdaldunen eta euskaldunen artean adostasun handia dago eta %65 alde agertu da. Horrek laguntzetan gaitu agintariekiko negoziatzeko edo hizketan gabiltzanean.

Gai hori buruz Pery andereak hizkuntza guttitiuen inkesta egiten zebilelarik Jean Daniel Chaussier Baionako fakultatean eta Bordelen politika jakintza irakaslea denak, gizarte eskaeraz, eta euskararen egoeraz abisatu zuen. Halaber hortarako Francis Jaureguiberry Paueko soziologoak idatzi bi liburuez baliatu zen. Bi iturriek sondaketek emanikakoa baiesten zuten.

13. Geroa

Bide handia egin dugu gure hizkuntzaren ezagutarazi beharrez, baina handiagoa gelditzen zaigu egiteko ezen haurren %21 ukitzen badu euskarak gisa batez edo bestez, zertarako baldin etxetik kanpo, lagunartetik kanpo eta nekez ezin bada ez administrazioan, ez zerbitzuetan, ez justizian, ez hurbiltasunezko irrati kazeta eta telebistetan erabili?

Bestalde oraindik nahikundearen gain dago hizkuntzaren geroa. Badakusagu (berdin abertzaleen artean) elebiduntasuna aipatzen denean itxurazkoa eta sinbolikoa dela, mintzairaren erabilerak ezpaitu jarraitzen ahozkoan eta guttiago idatzizkoan.

Bibliografia laburra

APALATEGI, Jokin, *Baloreak eta irakaskuntza*, AEB, Donostia, 1988.

CASTOREO, Patrick, *L'enseignement en basque en France (1789-1993)*, Lan hoberena, tesina, Pau, 1994.

ELKARREN ARTEKOA (collectif), *Processus sociaux idéologiques et pratiques culturelles dans la société basque*, Actes du Colloque CNRS, Pau, 1985.

ELKARREN ARTEKOA (collectif), *Un siècle de réglementation des langues à l'école*, L'Harmattan, Paris, 1980.

ELKARREN ARTEKOA (collectif), *L'enfant et le droit à l'éducation bilingue* (Centre Mondial de l'éducation bilingue), Torino, 1979ko biltzarra, Aosta, 1982.

ETXEBARRIA, Guillermo, *Recherche sur l'enseignement de la langue basque en Pays basque de France*, Tesia, Université de Bordeaux III, Bordele 1992.

GIORDAN, Henri, *Démocratie culturelle et droit à la différence*, Documentation française, Paris, 1982.

GRANET, Denis, *Langues minoritaires de France*, Bordeaux III. ko ikerlana, 1992

HAGÈGE, Claude, *L'homme de parole*, Folio, Paris, 1986.

HARITSCHELHAR, Jean, *La langue basque dans l'enseignement primaire en Pays Basque de France*, Fryske Akademy, Leeuwarden, 1988.

HERAUD, Guy, *Les communautés linguistiques en quête d'un statut*, Presses d'Europe, 1990.

LAPIERRE, J.W., *Le pouvoir politique et les langues*, Paris PUF, 1988.

LASSAN, Patrick, *Le pouvoir français et la question basque (1982-1993)*, GRHL, Toulouse II Unibersitatea, 1996.

PEILLEN, Txomin, *Eskola Zuberoan*, Maiatz I eta II, Baiona, 1983.

PEILLEN, Txomin, *Euskarazko lizenziatura ikasketak Frantzian*, Actas del XII Congreso de Eusko-lkaskuntza, 1993, Donostia, 1995.

PEILLEN, Txomin, *Euskal doktoradutza eta ikerketak Iparraldean*, Donostia, 1995.

QUÉRÉ, L., *Le statut de la langue dans l'Etat-Nation*, "France pays multilingue", L'Harmattan, Paris, 1980.

SIADÉCO, *Enquête socio-linguistique sur l'état de la langue basque dans les provinces de Soule (VI-87), Basse-Navarre (IV-VI 88), Labourd intérieur (IV-VI 89)*, Süazia elkarteak multikopiaz, Maule, 1989.

VERMES, G., BOUTET, J., *France pays multilingue*, L'Harmattan, Paris, 1980.

VINSON, Julien, *La langue française et les idiomes locaux*, Paris, 1880.